

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 5a

61. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Gobernu Irekiaren proiektua zabaltzeko kanpainaren aurkezpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, produktu turistiko eta kalitatezkoen atalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, sei hileko honetan Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan egin beharreko lanen egutegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Turismoaren Nazioarteko Azokan egotearen kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendariak ordainsari aldakorrak jaso ditzaten ezarritako irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, gune publikoetan erretzea debekatzeari buruzko 42/2010 Legearen gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, arriskuan dagoen flora eta faunaren katalogo berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Urbasako Jauregian egin beharreko inbertsioen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Xabierko Frantsisko Jatsukoa auditorioaren programazio- eta funtzionamendu-aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak zentro teknologikoetan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroa 1212-1512-2012” webguneari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, itxaronzerrendek 2011ko irailetik 2012ko otsailera izandako bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Martín de Azpilicueta Sariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseilu berrien eraketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseilu berriak eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren administrazio kontseilua hautatzeko irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari atxikitako enpresa publikoetako langileen gastuen kapituluari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, higiezinaren katastro-balorazioan akatsak antzeman izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, Ondasun Higiezinaren Zergaren diru-bilketan izanen den eraginaren gaineko erantzukizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Tafallan katastro-balio osoan izan den aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, Tafallako Udalak katastro-balorazioak ofizioz berrikusteko eskatu izanaren gaineko jakinarazpena jaso ote den jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).
- Galdera, Tafallako udalerrirako balioespen-lantaldea berrikusteko batzorde mistoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, jakitekoa noiz salduko den Donapea eta noiz aldatuko diren eraikin berrira. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, Donapea BHIIa saltzeko eragiketaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, Etxabakoizko San José zentroaren eraikina egiteko aurreikusi den aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- Galdera, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin 2011n sinatu zen hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gobernu Irekiaren proiektua zabaltzeko kanpainaren aurkezpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du Gobernu Irekiaren proiektua zabaltzeko kanpainaren aurkezpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak Gobernu Irekia proiektua zabalkunde-kanpainan aurkeztu izanari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00006), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Mugikorretarako aplikazioaren aurkezpenaren ondoren egindako afariaren fakturari dagokionez, 0 euroko kostua ekarri zien Gobernu Irekiaren Zuzendaritza Nagusiari edo Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuari.

Era horretako afarietarako gonbidatuak aukeartzeko erabiltzen diren irizpideei dagokienez, azaldu beharra daukat irizpide teknikoak eta ego-kitasunekoak erabiltzen direla, kasuan kasuko gaien arabera.

Azkenik, jakinarazi nahi dut El Mundo, El País, Servimedia, Diario de Navarra eta agentziak izan zirela afarian. Guztiak ere Nafarroak Madril en Ordezkaritzak deituta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñea, 2012ko martxoaren 1ean

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, produktu turistiko eta kalitatezkoen atalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du produktu turistiko eta kalitatezkoen atalari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 27ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak turismo-produktuen eta kalitatearen ataleko zenbait diru-partidari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00003), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

A10001 A1120 2262 432300 Aplikazio turistikoko programak

Obanosko Misterioa egiteko lankidetzak: 4.720 euro

Pilotaren Ibilbidea: 6.000 euro

Xabierko Museoa: 1.766 euro

A10001 A1120 2269 432302 Interes turistikoko zentroen sarea

Lan osagarriak, Xabierren: 2.48755 euro

Andelosko galdara mantentzea: 178,77 euro

Konponketak, Andelosen: 219,48 euro

Intsektuak hiltzea: 849,60 euro

Erriberriko aire girotua konpontzea: 408,0 euro

Arellanoko atea konpontzea: 837,8 euro

Argazki-kamera eta bateria: 169,91 euro

A10001 A1120 4709 432300 ETEek bitartekaritza eta zerbitzuak lortzeko laguntzak

Partida horri dagokion zenbatekoa kalitatezko Q egiaztapena lortzeko "A10001 A1120 4709 432302 ETEentzako laguntzak" partidara aldatu zen; izan ere, beharrezkoa ikusi zen partida horren zenbatekoa handitzea, ostalaritzako esta-

blezimenduei kalitatezko Q egiaztapena lortzen laguntzeko, turistak erakartzeko bereizgarria de heinean.

A10001 A1120 4819 432302 Turismo Kulturalako Gida Plana. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa

Iruñeko Artzapezpikutzarekiko hitzarmena, elizak eta monumentuak irekitzeko: 37.000 euro

A10001 A1120 6055 432302 Produktu turistikoen aplikaziorako inbertsioak (PTGP)

Hemingwayren Ibilbideko plaka berriro jartzea: 731,60 euro

Pilotaren Ibilbideko plaka berriro jartzea, Mañuetan: 253,60

Gainerakoari dagokionez, aurrekontu-aldaketak egin ziren.

A1001 A1120 4609 432300 Produktu Turistikoak garatzeko Tokiko Erakundeentzako eta Partzuergoentzako laguntzak

A1001 A1120 4609-432304 Partzuergoentzako Kudeaketarako Laguntzak

A1001 A1120 4819 432300 Elkarteentzako kalitate eta garapenerako laguntzak

Hiru partidek hartzen dute elkarte, tokiko erakunde eta partzuergo turistikoen 2011n egindako jardueretarako garapen turistikorako laguntzen deialdia.

Honako hauei dagozkie laguntzak: elkarte, tokiko erakunde eta partzuergo turistikoen kalitatean, prestakuntzan, produktuen sorkuntzan, ekitaldien antolaketan eta koordinazioan egindako jarduerak.

Guztira 544.210,61 euro banatu dira, eta 117 proiektu izan dira laguntza horien onuradun, ondoren adierazten den moduan banatuta: tokiko 20 erakunde (11.953,89 €), 7 partzuergo turistikoko (533.921,56 €) eta 19 elkarte (252.497,96 €).

Hasieran onartutako 772.000 euroko zenbatekora bitarteko tarte honako hauei dagozkie: hasieran laguntza onartu arren gerora egikaritu ez zirenak; ondorengo uko egiteak; hasieran aurreikusitako baino aurrekontu txikiagoak egikaritutakoak.

Tokiko erakundeak:	Ribaforadako Udala Lodosako Udala Otsagabiko Udala. Abartzuzako Udala Gesalazko Udala Los Arcosko Udala Vianako Udala Ultzamako Udala Fiteroko Udala Bidankozeko Udala Zugarramurdiko Udala Iruñeko Udala Arbizuko Udala Irañetako Udala Oibarko Udala Zangozako Udala Tuterako Udal. San Adriángo Udala Andosillako Udala Azagrako Udala
Partzuergoak	Erdialdeko Partzuergoa Lizarraldeko Partzuergoa Bertizko Partzuergoa Plazaola Partzuergoa EDER Partzuergoa Xabierko Partzuergoa. Erronkariko Batzarreak
Elkarteak	Irantzuko Turismo Elkarte Orhipean: bizibide eta usadioak elkarte Aralar Mendi Elkarte Nafarroako Ostalarien Elkarte Cederna Garalur Euskadi-Nafarroako Trenbidearen Bide Berdea Elkarte Lizarrako Ostalaritza Elkarte Nafarroako Onddo eta Zizen Kofradia Nafarroako Bidaia Agentzien Elkarte Alde Zaharra Elkarte Nafarroako Ostalaritzako Enpresa Txikien Elkarte ABELORE Nafarroako Nekazal Turismoko Elkarte Donejakue Bidearen Ardoaren Ibilbidea Elkarte Zaldiko Sustapen Elkarte Nafarroako Nekazaritza Turismoko Elkarte. AGROTURANA

A1100 A1120 4709-432302 (eskarian, 432303 ageri da, ustez, oker)

ETE turistikoei laguntzeko bideratu da, "Q" egiaztapena lortu eta horri eutsi diezaioten sustatzeko. 4709-432300 partida zenbatekoa xede horrekin handitu zen.

Deialdiaren goiburuan ageri den bezala, haren asmoa da establezimendu turistikoei kalitate turistikoko "Q" egiaztapenak lortzen eta horiei eusten laguntzea.

Jarraian adierazitako 14 establezimenduek egiaztapena lortzeko eta berritzeko gastuetarako laguntzak banatu dira, 24.443,15 euro, guztira.

Establezimenduak	Etxeberria landetxea El Redín jatetxea Olatzea landa-hotela Villa De Los Arcos hotela Ttakun jatetxea Granja Cinegética de Aves S.L. Castillo de Gorraiz hotela Ruralsuite Tudela Resort ap. tur. Casa De Los Ulibarri landetxea Villa Clementina landa-hotela Metsola Birding ap. tur. Lesakenea landetxea Tudela Bardenas hotela Ayestarán hotela
------------------	--

A1100 A1120 7609 432303

Produktu turistikoak garatzeko inbertsioetarako partzuergo turistikoak banatzeko laguntzen deialdia barne hartu zuen. Deialdi horretara bi espediente besterik ez ziren aurkeztu, eta artxibatu/ezeztatu egin ziren. Horietako batek, Erdialdeko Partzuergoak, aurrerago uko egin zion; eta bigarrenak, Plazaolako Partzuergoak, ez zituen betetzen oinarri arautzaileetan adierazitako baldintzak.

Aldez aurretik erreserbatu eta onartutako zenbatekoak aske gelditu ziren, eta horiei buruzko aurrekontu-akordioak egin ziren, gerora.

A1100 A1120 7709 432304, Produktu turistikoak sortzeko ekimen pribaturako FEDER transferentziak.

A1100 A1120 7709 432304, Produktu turistikoak sortzeko ekimen pribaturako FEDER transferentziak.

Bi partidek ETEei laguntzeko deialdi bat harzen dute; urte anitzerako deialdia da, 2008an onartua, 2008-2011 bitartean Nafarroan azpiegitura turistikoak sortzeko eta modernizatzeko.

Establezimendu berriak ezartzeko edo dagoneko sortuta dagoen establezimendu batek gora-goko kategoria lortzera bideratutako aktibo finkoen inbertsiorako laguntzak dira.

2011n, 6 establezimenduri ordaintzeko zauden zenbatekoak ordaindu dira; guztira, 338.682,92 euro.

Establezimenduak	Ereta hotela Mués landa-hotela Reino de Navarra apt. Arbizuko kanpina Leurtza abentura Etxesakan sagardotegia
------------------	--

A1100 A1120 7709 432302 Hobekuntza eta berrikuntzarako ekimen pribaturako transferentziak

2011n ezarrita zeuden establezimenduak hobetzeko eta berritzeko ETEen inbertsioetarako laguntzen deialdia hartzen du.

Deialdi horrek laguntza hauen banaketa arautu zuen: Espainiako kalitate turistikoaren sistemari atxikitako establezimenduetan Q egiaztapena lor-

tzeko edo horri eusteko berrikuntza eta hobekuntzak egiteko inbertsioetarako laguntzak eta aurreko atalean sartuta ez dauden jatetxeetan berrikuntzak eta hobekuntzak egiteko inbertsioetarako laguntzak.

Q egiaztapenari loturiko inbertsioetan, 9 establezimenduri banatu zaizkie diru-laguntzak (87.388,34 euroko zenbatekoa), eta jatetxeen saillean, 6 establezimenduri (81.612,61 euroko zenbatekoa).

ESTABLEZIMENTUEN MODALITATEA	ESTABLEZIMENTUEN MODALITATEA
Q	Besaro landa-hotela Mirasierra apartamentuak Juansarenea landetxea Atxaspi hotela, Mendebaldea Suites Lakoak landetxea Olatzea landa-hotela Metsola apartamentuak Ayestarán hotela
Jatetxeak	Maher hotela Café Iruña jatetxea Villamarcilla hotela Andía hotela Casa Domingo jatetxea La Hacienda jatetxea

A10001 A1120 7609 432302 Produktuak garatzeko tokiko erakundeekiko hitzarmena

Produktu turistikoak sortzeko inbertsioetarako tokiko erakunde eta partzuergo turistikoentzako laguntzen deialdi bat hartzen du, 2008an onartua; urte anitzerako deialdia da, 2008 eta 2011 bitartean egindako inbertsioetarako.

Askotariko azpiegitura turistikoetarako laguntzak dira, eta hiru ataletan banatzen dira: proiektuen idazketa, urte anitzeko planen baitako inbertsio txikiak, eta inbertsio handiak. Inbertsioei dagozkien etarako hitzarmen espezifikokoak behar dira.

2011n egin ziren edo egin zain daude (ondorioak) deialdiko azken espedienteak, Zaraitzuko Batzar Nagusiaren ordainketak (Iratiko etxeak), Goizuetako Udala (aterpe turistikoa sortzea), Eugiko Kontzejua (oinetakoentzako pasealekua) eta Iruñerriko Mankomunitatea (San Andres errota). Guztira, 722.431,08 euro. Atzeratu egin da, berariaz

hala eskatuta, Zaraitzuko Batzar Nagusiari egin beharreko ordainketa, 105.433,44 eurokoa.

A10001 A1120 7609 432304 Unitate turistiko- en garapenerako hitzarmenak (PTGP)

Bertizko Partzuergo Turistikoarekin egindako hitzarmen bat hartzen du (2010eko martxoaren 22ko Gobernu Akordioa). Hitzarmen horren xedea da honako bazkide hauen arteko mugaz haragoko proiektu bat egikaritzea: Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra, Frantziako aldean, eta Bidasoa Activa eta Bertizko Partzuergo Turistikoa, Nafarroako aldean. Proiektu hori Europak skofinantzatze-ko aurkeztu eta onartu zen, INTERREG IV A POC-TEFA programaren esparruan.

Hitzarmen honetan planteatutakoari dagokionez, inbertsioaren aurrekontua 796.664,8 eurokoa da (BEZa barne), eta 2010 eta 2012 egin behar dira inbertsio horiek.

Proiektuak dagoeneko onartua du 517.832,12 euroko diru-laguntza bat, hau da , % 65koa, Inte-

rreg IV bidez, eta Nafarroako Gobernuak gainerako zenbatekoa kofinantzatuko du, aipatutako hitzarmen horren bidez (278.832,68 euro, hiru urtetan banatuta).

2010. urtean: 13.303,08 euro

2011. urtean: 78.911,76 euro

2012. urtean: 186.617,87 euro

Bestalde, jarraian adierazitako aurrekontu-partidetan aurrekontu-aldaketak egin ziren edo ez ziren egikaritu:

A10001 A1120 6090 432300 Produktu turistikoaren garapena (PTGP)

A10001 A1120 7819 432300 EBEren berrikuntza-proiektuetarako laguntzak

A10001 A1120 7609 432303 Produktuen garapenerako partzuergoen inbertsio txikiak

A10001 A1120 7609 432300 Pirinioetako Plana

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoan.

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, seiheleko honetan Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan egin beharreko lanen egutegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du seiheleko honetan Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluan egin beharreko lanen egutegiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 17ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten, Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluarekin lotutako gai batzuei buruz (PES-00024). Hona Nafarroako Gobernuako Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

2012ko lehen seihelekoan zehar, Danimarkako lehendakaritzapean, Kulturaren esparruari dago-kionez, proposatutako lan-egutegiak honako bertaratze-saioak eta lan-saioak biltzen ditu, honakotan banatuak: hiru lan-batzorde edo -talde, Kultur Gaietako Batzordea eta Ikus-entzunezkoen Batzordea.

EUROPAR BATASUNAREN 2012ko AGENDA (urtariletik ekainerako seihilekoa)**URTARRILA**

9, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea + Ikus-entzunezkoen Taldea
 17, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea (goizez bakarrik)
 19, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea

OTSAILA

2, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea
 7, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea
 10, Brusela: Ministroen Kontseilua, Hezkuntza soilik
 16, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea
 21, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea

MARTXOA

5, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea
 15, Brusela (arratsalde): Ikus-entzunezkoen Taldea
 23, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea
 9, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea
 28-29, Kopenhage. Kultur Harremaneko Guneen Bilkura

APIRILA

2, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea
 3, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea
 18, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea
 20, Brusela: Ikus-entzunezkoen Taldea

MAITZA

10-11, Brusela: Ministroen Kontseilua

EKAINA

13-15, Kopenhage. Kultura Ministerioi eta Atzerri Gaietarako Ministerioi goi funtzionarioen bilera ez-formala
 21, Brusela: Kultur Gaietako Batzordea + Ikus-entzunezkoen Batzordea

UZTAILA

-Zipreko Lehendakaritza hasten da (bilkuren egunkaria maiatzaren 21ean aurkeztu zen Bruselan)

Kultur Gaietako Batzordearen bileretara pertsona bat joaten da, Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzatik. Ikus-entzunezkoen Taldearen bileretara Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko funtzionario bat joaten da. Bi pertsona horiek maila teknikokoak dira. Pertsona horien eginkizuna da bileraren jarraipena egitea eta autonomia erkidego guztiei bileren edukia helaraztea, bai eta autonomia erkidegoek Europar Batasunaren Kontseiluan parte hartzen laguntzeko webgunea mantentzea eta Espainiak Europar Batasunean duen Ordezkaritza Iraunkorarekin eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin koordinatzea ere.

MINISTROEN ORDEZKARITZA BRUSELAN

Aurreikusita dago datozen maiatzaren 10ean eta 11n Bruselan Kultura, Hezkuntza, Gazteria eta Kirol Ministroen Kontseilua biltzea. Oraindik ez dugu eskuratu Kulturari dagokion atalaren behin betiko gai zerrenda. Maiatzaren 10ean izanen da bilera. Ordezkaritza Iraunkorren Batzordeak onetsi behar du, eta Danimarkako Lehendakaritza jakinarazi behar du.

Nolanahi ere, Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako Departamentuari legokioke autonomia erkidegoetako arduradunei deitzea, bilera batean finka dezaten Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak Bruselako ministroen bilkuran defendituko duen jarre-

ra komuna. Ministroen Kontseiluaren bilkura horren burua Espainiako Gobernuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministroa izanen da.

Gogorarazi behar da autonomia erkidegoek Europar Batasuneko Ministroen Kontseiluen formazio batzuetan izanen duten parte-hartzea jasota dagoela Europar Erkidegoekin lotutako Gaiei buruzko Biltzarrak 2004ko abenduaren 9an hartutako erabakietan (2005eko martxoaren 16ko 64. EAO).

Danimarka lehendakaritzan dagoen seihileko honetan honakoak dira lantzen ari diren gai nagusiak:

- Ikus-entzunezkoen Taldean:

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erregelamendu bat egiteko proposamena, Europa Sortzailearen Programa ezartzeko (2014-2020).

Europa Sortzailearen Programak helburu gisa izanen du Europako kultura eta hizkuntza-aniztasuna aldeztu eta sustatzea. Halaber, indartu nahi du kultur-sektorearen eta sormen-sektorearen lehiakortasuna, haien hazkuntzarako laguntza batzuen bitartez.

- Kultur Gaietako Batzordean:

- Europako Parlamentuak eta Kontseiluak erregelamendu bat egiteko proposamena, Europa Herriarekin Programa ezartzeko (2014-2020).

Europa Herritarrekin Programaren helburua da sustatzea Europako herritarrak aktiboak izan daitezela, eta lagungarri gertatzea herritarrek Europar Batasuna hobeki uler dezaten -Europako kultur ondarearen digitalizatzea eta artxibatzea errazteko neurriak (EUROPEANA).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2012ko martxoan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Hezkuntza kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko Ana Beltrán Villalba foru parlamentari andreak galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten, Nafarroako Foru Komunitateak, aurtengo lehen seihilekoan, Europar Batasuneko Hezkuntza Kontseiluaren aurrean duen ordezkari buruz (8-12/PES-00024). Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

2012ko lehen seihilekoan, Danimarkako lehendakariaren pean, Hezkuntzaren esparruari dagokionez, proposatutako lan-egutegiak honako berataraze-saioak eta lan-saioak aurreikusten ditu:

HEZKUNTZA BATZORDEA BRUSELAN:

Urtarrilaren 6a

Urtarrilaren 19tik 20ra

Urtarrilaren 26tik 27ra

Otsailaren 23tik 24ra

Martxoaren 14a

Martxoaren 22a

Apirilaren 10a

Apirilaren 20a

Apirilaren 26ko eta ekainaren 6ko ahaleginak

Pertsona bat bertaratu zen, maila teknikoan. Pertsona horren eginkizuna da oharrak hartzea eta autonomia erkidego guztiei bileren edukia helaraztea, bai eta autonomia erkidegoek Europar Batasunaren Kontseiluan parte hartzen laguntzeko webgunea mantentzea eta Espainiak Europar

Batasunean duen Ordezkaritza Iraunkorarekin eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin koordinatzea ere.

MINISTROEN ORDEZKARITZA BRUSELAN

Otsailaren 10a.

Kontseilua Hezkuntzaren esparrura mugatzen da: Honakoa izan da oinarritzko edukia:

- Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan lan-kidetza europarrerako esparru estrategikoa aplikatzeari buruzko txosten bateratuaren proiektua (ET, 2010) - Hezkuntza eta prestakuntza Europa adimentsu, jasangarri eta inklusiboan.

- Europa 2020 Estrategia – Hezkuntzaren eta prestakuntzaren ekarpena gazteen langabezia gutxitzeko.

- Lehendakariak proposatutako eztabaida politikoa: Zuen ustez, zein ekimen politiko zehatz lehenetsi behar da 2012an, hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan gaur egun gazteen langabezia maila altuak arintzen laguntzeko eta krisiak gazteengan izan dituen ondorio sozialak gutxitzeko?

Hezkuntza, Kultura eta Kirol kontseilariarekin batera, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilaria bertaratu zen, autonomia erkidego guztien ordezkari. Haren hitzaldia aurrez adostu zen, Iruñean, otsailaren 7an eginiko bileran. Biler horretara, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak Ebaluazioko eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusia buru duen Hezkuntzako Batzorde Nagusiko kideak etorri ziren.

Maiatzaren 11.

Ministroen Kontseiluaren seihilekoko bigarren bilkura. Aurreikusitakoaren arabera, honako gaiak buruzkoa izanen da:

- *Erasmus guztientzat* proposamena
- Ikaskuntza formala eta ez-formala baliozkotzeari buruzko gomendioa.
- Enplegarritasunari buruzko adierazlearen gaineko ondorioak.

Hezkuntza gaietarako, berriz ere, Nafarroako Hezkuntza kontseilaria bertaratu zen.

Iruñean, 2012ko otsailaren 27a

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txema Mauleón Echeverría jaunak galdera egin du Gazteluko plazan aurkitutako aztarna arkeologikoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 17ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak Iruñeko Gaztelu Plazan aurkitutako arrasto arkeologikoei buruz idatziz erantzuteko egindako galderei dagokionez (PES-00023), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Arrasto horiek, Nafarroako Foru Komunitatean egindako esku-hartze arkeologiko baimenduetan aurkitu eta bilduma museografikoetan edo museoetan erakusgai jarri gabeko gainerako ondasun higagarriak bezala, Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren Arkeologiako Biltegian daude gordeta. Garbituta, siglatuta, errotulatuta eta material arkeologikoa biltegiratzeko erabili ohi diren bilgarri estandarretan bilduta daude.

Han gordetako funtsak eskuragarri dituzte interesdunek, alde zuzenetik kontsultarako eskaria egin gero.

Ateratako material higiezinak Iruñeko Udalean gordailututa daude, Biltegian gordeta dauden bi opus *tesellatum* mosaiko erromatar zatitu izan ezik. Honako material hauek daude gordailututa, zehazki:

- 51 palet, opus signinum zola zatiek. - egurrezko 6 kutxa, teila eta adreilu erromatarren zatiek. - 1 palet, termetako hipokaustoko galdararen oinarriko harlandu erre batekin. -4 palet, hareharrizko harlanduekin. -1 palet, hareharrizko lauzeekin. -Erdi Aroko harresiko 6 bloke handi. -3 palet, kareozko blokeetan sartutako zeramikazko hodi-ekin. -126 palet, kioskoko mosaikoarekin eta plazako zoru apainduarekin.

Material horiek guztiak 2008ko irailean lurperatu zituen Iruñeko Udalak, urte hartako apirilaren 18an Ondare Historikoaren Zerbitzuak emandako txostenarekin bat etorrira.

Erdi Aroko harresiaren zatirik handiena lurpeko aparkalekuko lehen solairuan dago.

Arrastoen katalogoari dagokionez, zera xedatzen du Nafarroako Kultura Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 58.4. artikulua:

Arkeologiaren arloko esku-hartze baterako baimenak ezarritako baldintzetan lanak egitera behartzen du titularra, eta gainera berreskuratutako ondasunen eta lortutako agirien inbentarioa eta gordailua egitera...”

Hortaz, Nafarroako Foru Komunitatean egindako gainerako esku-hartze arkeologiko guztietan bezala, inbentario xehe bat dago horri buruz ere. Bi kategoria bereizten dira inbentario horretan: interes handiagoko pieza bereziak, banaka inbentariatzen direnak; eta lote modura inbentariatzeko materia ez-zehazgarriaren multzoak.

Pieza guztiak daude beren erreferentziatzeko siglaz hornituak, eta inbentarioko fitxetan adierazita daude aurkikuntzaren datu partikularrak (sektorea, laukia, geruza estratigrafikoa, etab.), deskribapena eta kronologia.

Hona hemen kontserbatutako materialaren zerrenda.

- Numismatika Inbentarioa, I. liburukia, Txanpon identifikagarriak, 240 fitxa

- Numismatika Inbentarioa, II. liburukia, Txanpon identifikaezinak, 252 fitxa

- Metalezko Materialen Inbentarioa, I. liburukia (M1-M350), 350 fitxa

- Metalezko Materialen Inbentarioa, II. liburukia (M351-M700), 405 fitxa

- Metalezko Materialen Inbentarioa, III. liburukia (M701-M1016), 315 fitxa

- Metalezko Materialen Inbentarioa, I. Eranskin (C2365-C2464 / M1017-M1103 / Md1-Md86), 273 fitxa

- Metalezko Materialen Inbentarioa, II. Eranskin (L33-L210 / V305-V302 / Q29-Q30), /O249-O327), 273 fitxa

- Hezurkizko Materialen Inbentarioa, I. liburukia (O1-O248), 248 fitxa

- Harrizko Materialen Inbentarioa, I. liburukia (L1-L32), 28 fitxa

– Beirazko Materialen Inbentarioa, I. liburukia (V1-L304), 304 fitxa

– Larruzko Materialen Inbentarioa, I. liburukia (Q1-Q28), 28 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, I. liburukia (C1-C350), 350 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, II. liburukia (C351-C700), 350 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, III. liburukia (C701-C1050), 349 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, IV. liburukia (C1051-C1400), 349 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, V. liburukia (C1401-C1750), 349 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, VI. liburukia (C1751-C2100), 349 fitxa

– Zeramikazko Materialen Inbentarioa, VII. liburukia (C2101-C2364), 263 fitxa

– Material Orokorren Inbentarioa, I. liburukia (1 kutxa-215 kutxa), 367 sarrera

– Material Orokorren Inbentarioa, II. liburukia (216 kutxa-578 kutxa), 358 sarrera

Guztira: 5.800 fitxa-sarrera

Horri guztiari hilobiak erantsi behar zaizkio: 59, Santiagoko nekropolisekoak; 4, karmeldarretakoak, eta 190, islamiar maqbarakoak, zein bere erregistro-fitxarekin.

Dokumentazio hori guztia interesdunek kontsultatze moduan dago, Arkeologiako Sailaren aretoetan (Kale Nagusia, 75, behea, 31001, Iruñea).

Arrasto arkeologikoei dagokienez, ondasun higigarrien kasuan soilik eman dakieke dagokien balioa. Ildo horretatik, Nafarroako Ondare Arkeologikoa bi dibulgazio-ildotatik lantzen ari da Arkeologia Saila, eta ildo horiek baliagarriak dira Gaztelu Plazako aurkikuntzei dagokienez ere.

-Aldi baterako erakusketetan erakusgai jartzea. Nabarmendu beharra dago aipagai dugun indusketa arkeologikoko zenbait material jendaurrean erakutsi izan direla, honako erakusketa hauetan:

-Lurra arin bekizu. Heriotzaren arkeologia, Nafarroan. Kulturako Zuzendaritza Nagusiak antolatua zuen, 2007-2008an Nafarroako Museoan egin zen, eta maqbarako arrastoak eta San XXXX komentuko nekropoliseko hileta-aurkikuntzak bildu zituen.

– Iruñea, berriz aurkitua.. Iruñeko Udalak antolatua zuen, eta Condestable Jauregian egin zen, 2009-2011 bitartean; indusketa hartan berreskura-

tutako material arkeologikoei osatutako erakusketak izan zen, batik bat.

– Erakusketa iraunkorrak. Gaztelu Plazan topatutako piezarik bikainenek Nafarroako Museoko erakusketa iraunkorra osatuko dute, seguru asko. Baina Erroma aretoa birmoldatzeko zain dagoenez, berritze-lan horiek egindakoan hartu beharko da erabakia.

Aparkalekuan txertatutako Erdi Aroko harresiaren hondakinak jendeak ikusteko moduan daude.

Nafarroako Foru Komunitateko Ondare Arkeologikoa osatzen duten ondasun arkeologiko guztiak jabari publikoa dute, Nafarroako Kultura Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legearen 56. artikulua dioena betez. Beraz, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiak zehaztuko du haien norakoa. Ondasun arkeologiko higigarriak Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren Biltzetan gordailutuko dira, araudia betez; hau da, arkeologia-lanak amaitu eta urtebetera.

Azaroaren 22ko 482/2011 Ebazpenaren bidez, Vianako Printzea Erakundea-Kulturako zuzendari nagusiak baimena eman zien Gabineteko Trama, S.L. etxeari eta Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutegiari Iruñeko beheko logelan premiazko lanak egiteko. Esku-hartze arkeologikoa amaitu gabe dago oraindik.

Ebazpen horren arabera:

“1. E) Esku-hartze arkeologikoaren eta jarduera arkeologiko historikoen emaitzak katedralaren multzoa birgaitzeko proiektuan kontuan hartu beharko dira, eta hartu beharreko neurri zuzentzaile edo/eta aringarriak hartu. Ondorio horietarako, txosten bat idatziko da, eta Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiaren irizpen loteslearen mende egongo da, kultura-ondare higigarria nahiz higiezina babesteko hartu beharreko neurriei dagokienez

Hala, arrasto arkeologikoen norakoa indusketa arkeologikoa amaitutakoan erabakiko da, sustantzaileak aurkezten duen birgaitze-lanen proiektua eskuratutakoan.

Aipatutako indusketetako ondare arkeologiko higigarriari nahiz higiezinei ematen ari zaien tratamendua bat dator Vianako Printzea Erakundea-Kulturako Zuzendaritza Nagusiko arkeologiako zerbitzu teknikoek obren ikuskaritzan eta obretara egindako bisitetan oinarriturik unean-unean zehaztutakoarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoan.

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Turismoaren Nazioarteko Azokan egotearen kostuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Turismoaren Nazioarteko Azokan egotearen kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 3ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Nazioarteko Turismo Azokari buruz idatziz erantzuteko egingako galderari dagokionez (00009), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroa Nazioarteko FITUR 2012 Azokan jomuga turistiko modura aurkezteko ekimena 2012ko Turismoko Garapen eta Marketingeko Eragiketa Programako Azoka eta Aurkezpenen Eragiketa Planean sartuta dago.

Ekintza horrek helburu bikoitza du. Alde batez, Nafarroa jomuga turistiko gisa eta haren turismo-produktuak aurkeztea, turismo-azoka handi horrek biltzen duen merkatu nazionalen eta nazioartekoan eta Madrilen, Nafarroarentzat gaur egungo merkatu eta merkatu estruktural gisa garrantzi handia duen hiri batean. Bigarren helburua zen hedabide konbentzionalen nahiz ez-kon-

bentzionalen bidez eta on line nahiz off line hedabideen bidez zabaltzeko moduko berriak eta informazioa sortzea.

Fitur 2012ren kostua 279.718,41 eurokoa izan da; 2011koa baino %18,5 txikiagoa. Ondoren adierazten diren kontzeptuak biltzen ditu kostu horrek:

– Standa sortzea, muntatzea eta desmuntatzea.- 90.000 €

– IFEMAko lurzorua alokairua, eta argia, ura, Internet eta garbiketa.- 84.518,94 €

– Standaren diseinua.- 23.600 €

– Bitarteko tekniko, informatiko eta ikus-entzuzkoak.- 29.500 €

– 2012ko bideoa 3Dra egokitzea.- 10.620 €

– Nafarroaren sustapen gastronomikoa.- 8.6040 €

– Eremu gastronomikoko arretarako langileak.- 8.397,47 €

– Standeko arretarako langileak.- 10.819 €

– Standaren animazioa.- 3.593 €

– Komunikazio- eta zabalkunde-lanetarako langileak.- 10.030 €

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoan

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendariak ordainsari aldakorrak jaso ditzaten ezarritako irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako zuzendariak ordainsari aldakorrak jaso ditzaten ezarritako irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko otsailaren 24ko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villaba andreak sozietate publikoetako zuzendari nagusien ordainsari aldakorrarekin lotuta Nafarroako Gobernuak xedatutako irizpideei buruz idatziz

erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00027), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Nafarroako Enpresa Publikoen Korporazioan dauden sozietateetako zuzendari-kudeatzaileek jaso beharreko aldagaien ezarpena eta helburuen definizioa, hain zuzen, Plan Zuzentzaileak amaitu eta aztertzen direnean egingen dira.

Sozietate bakoitzaren Administrazio Kontseiluek onartu beharko dituzte aipatutako Plan Zuzentzaile horiek, eta bide beretik, horiek betetzetik eratorritako ordainsari aldakorra eta definitutako helburuak onartuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 16an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, gune publikoetan erretzea debekatzeari buruzko 42/2010 Legearen gainekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak galdera egin du gune publikoetan erretzea debekatzeari buruzko 42/2010 Legearen gainean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Fernando Ibiltzieta Olleta jaunak tabakismoaren aurkako osasun-neurriei buruzko eta

tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen 28/2005 Legearen aplikazioari buruz (2011ko urtarrilaren 1ean indarrean jarri zena eta abenduaren 30eko 42/2010 Legeak aldatzen duena) idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00035), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

1.- "Nafarroako Gobernuak ba al du Foru Dekretu bat osatzeko eta onartzeko asmorik?"

Nafarroako Gobernuaren iritziz, 28/2005 Legeak eta gerora 42/2010 Legearen bidez egindako haren aldaketak gure Foru Erkidegoan tabakoaren produktuen salmenta-, hornidura-, kontsumo- eta publizitate-baldintzak arautzeko eta tabakoa uzteko eta epe ertain zein luzean ohitura hori errotik

desagerrarazten saiatzeko behar besteko arau multzoa osatzen dute.

Tabakismoari aurre egiteko osasun-neurrien antolamendua eta tabakoaren produktuen salmentaren, horniduraren, kontsumoaren eta publizitatearen ikuskaritza zein kontrolerako neurrien antolamendua, hain zuzen, abuztuaren 24ko 134/2011 Foru Dekretuak, Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duenak, arautu du, eta zehazki, funtzio horiek egozten dizkio Nafarroako Osasun Publikoko Institutuari.

Beraz, ez da beharrezkotzat jotzen lehendik daudenei gehitzeko moduko bestelako araudirik ezartzea.

2.- “Noizko egonen litzateke prest aipatutako Foru Dekretua?”

Galdera honi dagokion erantzuna aurreko erantzunean ageri da.

3.- “Gauza jakina da ostalaritzan eta gastronomia-elkarteetan 42/2010 Legea aplikatzeko zailtasunak izan direla. Horren adibide dugu gastronomia-elkarte guztietan zer egin behar duten jakin gabe dabiltzala oraindik ere. Nafarroako Gobernuaren iritziz, 42/2010 Legea kontuan izanda, erre al daiteke gastronomia-elkarteetan?”

Herritarrek 42/2010 Legea hauteman, onartu eta bete duten moduari buruz Nafarroako Gobernuak egiten duen balioespen orokorra oso positiboa da, arlo guztietan. Halaxe berresten dute, hain justu, hainbat kontsumitzaile-erakunde eta -elkartek, osasun publikoko hainbat erakunde eta elkartek eta tabakismoaren prebentzioarekin lotutako hainbat erakunde eta elkartek gauzatutako azterlan, xosten eta inkesta ugari. Ostalaritzaren alorrean modu orokorrean betetzen da legea, eta baieztza liteke, salbuespen gutxi batzuk alde batera utzita, bezeroak dagoeneko ohitu direla ostalaritza-guneetan ez erretzera.

Galderan aipatutako bigarren puntuari dagokionean, Nafarroako Gobernuaren aburuz, 42/2010 Legeak espresuki debekatzen du gastronomia-elkarteetan erretzea.

Debeku hori, zehazki, Lege horretako 2. artikuluko e) atalean irakur daiteke; izan ere, erabilera publikoko espazioak definitzen dira bertan, esanez, jendea oro har sartzeko moduko tokiak direla edo taldean erabiltzeko tokiak, publikoak zein pribatuak izan. 42/2010 Legean ez dago inolako salbuespenik gizarte-egoitzetako espazio itxietan edo ezin elkarte publiko zein pribatuk erabilitako lokaletan erretzea debekatzearekin lotuta, erretzaileen elkarte pribatuak salbu.

Ondorioz, bestelako elkarrekin ez daukate toki itxietan erretzeko baimenik. Xedapen honek era guztietako elkarrekin hartzen ditu aintzat, baita kirol-lagunartean, gastronomia-elkarrekin, kultura-elkarrekin, jai-batzordeen eta bestelako zeinahi ekimenetarako taldeen egoitzak edo lokalak ere. Aipatutako elkarrekin lokaletan bestelako zeinahi jarduera gauzatuz gero ere (esate baterako, ospakizun partikularrak), ezinbestean bete beharko da legea; beraz, ekintza horietan ere ezinen da erre espazio itxietan.

4.- “Nafarroako Gobernuak 42/2010 Legearen zein puntutan oinarritzen da erre daitekeen ala ez esateko?”

Aurreko galderaren erantzunari gehitu beharko genioke Lege honen 2. artikuluko e) atalean erabilera publikoko espaziotzat jotzen direnez gastronomia-elkarrekin, 7. artikuluko honako paragrafo hauek aplikatu behar zaizkiela:

i) Aisialdi- eta astialdi-guneak, aire libreko espazioetan izan ezik.

l) Elikagaiak landu, eraldatu, prestatu, dastatu edo saltzen diren gune edo saltokiak.

s) Lege honek araututa, beste arauen batek xedatuta edo titularrak hala erabakita erretzea debekatuta dagoen beste zeinahi toki. (Elkarte askotan, bazkide-biltzarrean libreki erabakita, elkarrekin lokalak kerik gabeko gune izendatzea erabaki dute).

x) Erabilera publikoko edo taldean erabiltzeko gainerako espazio itxi guztiak.

5.- “Demagun gastronomia-elkarteetan ezin dela erre. Zer erakundek egingen dute ikuskaritzalana legea betetzen den ala ez jakiteko?”

Arestian aipatu dugun moduan, 134/2011 Foru Dekretuak Osasun Publikorako Institutuari eta haren ikuskaritza-zerbitzuei egozten die 42/2010 Legea betetzen ote den jakiteko egin beharreko ikuskaritza- eta kontrol-lana.

Bestalde, Nafarroako Gobernuaren 2006ko urtarrilaren 30eko Akordioak, Nafarroan abenduaren 26ko 28/2005 Legea (tabakismoari aurre egiteko osasun-neurriei buruzkoa eta tabakoaren produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen duena) aplikatzeari buruzko Argibideak onartzen dituenak, agintzen du Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak eta haren Erakunde Autonomoek esku hartu behar dutela berorren kontrol-, zaintza- eta ikuskaritzalanean.

Akordio horrek, hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren Era-

kunde Autonomoen arloko kontrol-, zaintza- eta ikuskaritza-lanak Osasun Publikoko Ikuskariei egozten dizkie, eta eskumenen arabera dagozkien arloetan, Kontsumo Ikuskariei eta hainbat polizia-kide zein segurtasun-indarri; betiere, araudi espezifikoarekin bat eginda Lan eta Gizarte Segurantzaren arloko Ikuskariei dagozkien kalterik eragin gabe.

Nafarroako Gobernuaren web-orriak eta zehazki Osasun Publikorako Institutuarenak aukera ematen diete herritarrei 42/2010 Legeari buruzko informazioa eskuratzeko. Hala, galdetegi elektronikoko bat dago, Lege horren xedapenak urratzeagatik salaketak modu errazean aurkeztu ahal izateko. Ondorioz, araua betetzearen gaineko kontrola gauzatzeko zeregina duten erakundeek ikertu eta izapidetuko dituzte salaketa guztiak.

6.- “Legea bete ezean, zein lirateke zehapenik arinena eta gogorrena? Non daude xedatuta? Zertan oinarritzen dira zehapen horiek?”

42/2010 Legea ez betetzeagatik arau-hauste eta zehapenen erregimenak Lege horren V. kapituluaren daude xedatuta.

20. artikuluko 1. atalak (Legearen Zehapenak) dioenaren arabera, arau-hauste arinei 30etik 600 eurora arteko isuna jarriko zaie. Salbuespena izanen da debekatutako tokietan erretzeari dagokiona, 19.2.a) artikuluan aurreikusitakoa, eta arau-haustea modu bakanean gertatu bada, 30 eurora arteko isuna izanen du zigor.

Zehapenik larrienek, berriz, 10.001 euro eta 600.000 euro bitarteko isunak izanen dituzte.

Zehapen guztiak honako irizpide hauen araberrakoak izanen dira:

Ezartzen den zehapenaren zenbatekoa, adierazitako mugen barnean, hainbat ezaugarriaren arabera mailakatuko da: osasunari begira daukan

arriskua, arau-hauslearen ahalmen ekonomikoa, arau-hausteak gizartean izanen dituen ondorioak, zigortutako jokamoldeak arau-hausleari ekarri dion mozkina eta Legeari begira alde aurretik arau-hauste bat edo gehiago eginda izatea.

Kategoria bakoitzaren barnean, zehapenak hiru mailatan bereizten dira: txikiena, erdikoa eta handiena. Maila handienean egonen dira kaltetuak edo subjektu pasiboak adingabeak direnean jarritako zehapenak eta araua hausteko jokamoldea ohikotasunez eta etengabe gauzaten denean jarritakoak, non eta ohikotasuna edo etengabekotasuna arau-hauste motaren baitakoak ez diren.

Maila txikienekoak izanen dira, bestalde, adingabe batek gauzaturakoei jarritako zehapenak, 21.8 artikuluan xedaturakoei kalterik eragin gabe.

Nolanahi ere, isunaren zenbatekoa arau-hauste egiteagatik lortutako mozkina baino gutxiago denean, zehapena handitu ahal izanen da, arau-hausleak ateratako mozkinaren zenbatekoa bikoizteraino, gehienez ere.

Gertakari bakar batek edo egin ezak bi arau-hauste edo gehiago eraginen balitu (Lege honetan edo beste batzuetan sailkatutakoak), zehapen handiena dakarrena hartuko da aintzat, soil-soilik.

Administrazioaren iritziz, arau-hausteak hutsegite edo delitutzat har daitezkeenean, administrazio-organoak Ministerio Fiskalari igorriko dio kasua eta zehapen-prozedurarekin aurrera egiteari uko egingen dio, harik eta agintari judizialek iritzia azaldu arte. Zehapen penala izanez gero, administrazio-zehapena jartzerik ez da izanen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, arriskuan dagoen flora eta faunaren katalogo berriari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du arriskuan dagoen flora eta faunaren katalogo berriari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 2ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak mehatxatutako flora eta faunaren katalogo berriari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11/PES-00028), hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du egin Nafarroako habitat eta espezieen (flora eta fauna) katalogo berria, 42/2007 lege berriaren arabera? Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik berandu baino lehen hori gauzatzeko?

42/2007 Legeak, bere 55. artikulua 3. atalean, autonomia-erkidegoetako katalogoak egiteko aukera ematen du, baina ez du, inola ere, horretara derrigortzen. Katalogoa xedatzen zuen 139/2011 Errege Dekretua (eta ondorioz, horixe da eguneratze berriena) iazko otsailaren 23an argitaratu zuten. Horri begira, Nafarroako katalogoa katalogo nazional horretara egokitzeko premia ba ote den aztertzen ari da Departamentua.

Nafarroako Gobernuak zergatik ez du egokitu, 2001. urteaz gero (urte horretan sartu zen euroa), fauna-espezieen balioa eurotara, eta zergatik ez du eguneratu dagokion zenbatekoa urteko KPIaren arabera? Noiz egingen du, baldin eta egitea aurreikusita badauka?

Oraingoan, ez da beharrezkotzat jo egokitzapen hori egitea; izan ere, kalte-ordainen zenbateko garbia eta legeko ondorioak berdin-berdin dira baliagarriak, indarrean dagoen moneta zeinahi delarik ere. Aurreko kasuan bezala, 139/2011 Errege Dekretuarekin, zalantza sortu daiteke espezie jakin batzuei kalte-ordaina jartzeko baremo zenbait oraintxe bertan koherenteak ote diren espezie horien desagertze-arriskuarekin, aipatutako katalogoaren eguneratzeak eta bereziki Foru Komunitateko populazioak agerian utzi duten moduan.

Nafarroako Gobernuak balioespen ekonomikorako beste baremo bat egingen al du, nola habitat naturalei begira, hala Nafarroako flora eta fauna basatiei begira? Hala bada, noiz dauka aurreikusita argitaratzea?

Aurreko galderan aipatutako gogoeten haritik, litekeena da kalte-ordainetarako baremoaren analisia egin, eta ondorioz, aldaketaren bat etortzea; baina hori oraintxe ari gara aztertzen, eta oraindik ez dugu erabakirik hartu.

Katalogo berriarekin, idatzi eta aplikatuko al da Nafarroako espezie kalteberak eta desagertzeko arriskuan daudenak lehengoratzeko planik?

Oraintxe bertan, 42/2007 Legeak aipatutako esparruaren baitan, hainbat espezie Lehengoratzeko Plan batzuk aplikatzen, eta aldi berean, mehatxupean dauden espezieak zaintzeko hainbat neurri hartzen ari gara, nahiz eta oraindik ez dagoen onartuta inolako lehengoratzeko-planik. Bestalde, Natura 2000 sarearen plangintza egiten ari da Departamentua, eta 42/2007 Legeak xedatzen duen bezala, sare horrek bat etorri behar du mehatxupean dauden ezin konta ahala espezie lehengoratzeko planak osatzearekin.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroako espezie exotiko eta inbaditzaileen katalogoa osatzeko? Era horretako espezieen kontrolerako plan edo estrategiaren bat ba al dago aurreikusita?

Espezie horien izaera eta ondorioak direla tarteko, horiei buruzko lana, foru-erkidegoan baino gehiago, nazioan egin beharko litzakete. Erkidegora soilik mugatuz gero, eraginkortasuna ere murriztu egingen bailitzateke. Horregatik, nazioko araudia (1628/2011 Errege Dekretua) onartu zen. Bertan, autonomia-erkidegoetako espezie interesgarriak txertatu dituzte, eta baita elkarlanean eta modu koordinatuan lan egiteko ildoak ere, Estatu osoko lurraldeetan borroka eraginkorra egin ahal izateko. Horrekin lotutako estrategien arloan egin beharko du Departamentuak, hain justu, espezie horien kontrol-lana.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Lourdes Goicoechea Zubelzu, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria

Galdera, Urbasako Jauregian egin beharreko inbertsioen aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du Urbasako Jauregian egin beharreko inbertsioen aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 2ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak Urbasako Jauregian egin beharreko inbertsioen aurreikuspenari buruz egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00030), honako hau erantzun nahi diot:

Nafarroako Gobernuak beti uste izan du garrantzitsua dela Urbasako Jauregiaren multzo osoaren gainean jardutea, hura lehengoratzeko eta haren erabilera garapen onena izateko aukeren arabera egokitzeko.

Jauregia lehengoratzeko, kontuan hartu beharko da ematen zaion erabilerak lagungarri gertatu behar duela eskualdeari bultzada ekonomikoa emateko; halaber, eraikina ezarrita dagoen ingurune natural berezia aintzat hartu beharko du.

Ondorioz, Departamentuak beharrezkotzat jo zuen hotel bat ezartzeko aurreproiektu bat egitea, negoziatutako prozeduraren arabera eskatu zena, inolako publizitaterik gabe, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 73.3.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki. Turismoko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 22ko 6/2007 Ebazpen bidez, A+D Consultoría en Ingeniería y Construcciones SL enpresari esleitu zitzaion lana. Aurreproiektuaren arabera, aukera dago Jauregiko instalazioetan lau izarreko hotel bat jartzeko; bide beretik, haren banaketarako ezaugarri teknikoak

eta gutxi gorabeherako aurrekontua ere jasotzen ditu.

Hurrengo urrats osagarri gisa, Jauregian hotela jartzeko aukeraren bideragarritasunari buruzko azterlan bat egin zen.

Turismoko zuzendari nagusiaren ekainaren 9ko 184/2008 Ebazpenaren bitartez, azterlan hori egitea "Advanced Leisure Services SL" enpresari esleitu zitzaion, eta hirurogeita hamar egun natu-ralelan egiteko epea ezarri zitzaion.

Enpresak aurkeztutako azterlanak kontuan izan zuen gauzatutako aurreproiektua ere, eta hori- tik ondorioztatu zen bideragarria zela lau izarreko hotel baten ustiapena egitea; betiere, baldin eta berori eraikitzeke administrazioaren laguntza izanez gero. Kokagunearen ezaugarriek ere asko lagundu dute erabaki horretan; izan ere, ustiapenerako baldintza batzuk betetzen ditu, eta gainera, Jauregia osatzen duten eraikuntzen baldintzei hertsiki lotuko zaien hotela eraikitzea da asmoa.

Alabaina, krisialdi ekonomikoak oso eragin handia izan zuen azterlanetik ondorioztatzen zen planteamenduan. Izan ere, krisialdiaren ondorioz, ekimen pribatuak egin beharreko funtsezko ekarpena ia ezinezkoa izan zen. Horri Foru Ogasunaren aurrekontu-egoera zaila gehitu behar zaio. Eta horren ondorioz, ia ezinezkoa izan zen proiektuari ekitea.

Hori dela eta, egokitzen jo zuen Ekonomia eta Ogasun kontseilariari gertatutakoaren berri ematea eta Departamentu horri instalazioa eskaintzea, Nafarroako Gobernuak hartarako beste toki bat bila zezan, ingurunerako diseinatu daitezkeen jardueren barruan. Dena den, testuinguru ekonomiko hobe datorrenean, beti egongo da aukera Jauregia ostatu turistiko gisa erabiltzeko.

Horixe da azaldu behar dizudana, Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Xabierko Frantsisko Jatsukoa auditorioaren programazio- eta funtzionamendu-aurreikuspenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du Xabierko Frantsisko Jatsukoa auditorioaren programazio- eta funtzionamendu-aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 2ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak Frantzisko

Jasso Xabierkoa Entzunaretoko programazio- eta funtzionamendu-aurreikuspenari buruz egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00031), honako hau jakinarazi nahi diot:

Frantzisko Jasso Xabierkoa izenez ezaguna den higiezina Jesusen Lagundiaren jabetzakoa da. Ondorioz, Administrazio honek ez daki zein den titularrak aurreikusita daukan programazioa, ezta funtzionamendua ere.

Horixe da azaldu behar dizudana, Iruñean, 2012ko martxoaren 22an.

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Gobernuak zentro teknologikoetan parte hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak zentro teknologikoetan parte hartzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 2ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko martxoaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Zentro Teknologikoei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-11-/PES-00029), hau erantzun du Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

1- Nafarroako Gobernuak zer Zentro Teknologikotako akzioduna da? Zer-nolako parte-hartzea dauka zentro teknologiko bakoitzean?

Nafarroako Gobernuak ez du ekonomikoki parte hartzen inolako Zentro Teknologikotan, ez baitira Sozietate Anonimoak; gehientsuenak, Fundazioak dira.

2- Zenbat kontseilari ditu Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen Zentro Teknologiko bakoitzean? Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen Zentro Teknologiko bakoitzean zer pertsona daude kontseilari izendatuta?

Zentro Teknologiko gehienak Fundazioak dira; ondorioz, ez dute Kontseilurik, Patronatua baizik. Hortik abiatuta, Nafarroako Gobernuak honako Zentro Teknologiko hauetako gobernu-organoei dauka ordezkariak; bai zuzenean, bai Sozietate Publikoen bitartez (ikusita erantsita doan excelan).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 28an

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

ZENTRO TEKNOLOGIKOA	ARAUBIDE JURIDIKOA	ORDEZKARIAK
CETENA (CITEAN-CTEL-CEMITEC)	Fundazioa	Lourdes Goicoechea Zubelzu, Jorge San Miguel Indurain, Rafael Muguerza Eraso, Pablo Romera Alonso, Begoña Ganuza Bernaola.
CENER-CIEMAT	Fundazioa	Lourdes Goicoechea Zubelzu, Jorge San Miguel Indurain, Rafael Muguerza Eraso, Gerardo Fernández Andueza, Cernin Martínez Yoldi, José Miguel Gamboa Gamboa, Ramón Bultó Llevat.
CNTA	Irabazi-asmorik gabeko elkarte	Jorge San Miguel
IDAB	Zentro Mistoa ZIGB Unibertsitateak	Jorge San Miguel eta Gerardo Fernández
FIDENA	Fundazioa	Jorge San Miguel-Nafarroako Gobernuak eta Alberto Clerigué de Sodena
FIDIMA	Fundazioa	César Berrozpe de Sodena

Galdera, Nafarroa 1212-1512-2012” webguneari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Nafarroa 1212-1512-2012” webguneari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak Nafarroako 1212-1512-2012 web-orriari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera-

ri dagokionez (PES-00039), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

1212 eta 1512ko urteurenentarako web-orrialde espezifiko dagoeneko ikusgai dago honako helbide honetan: <http://navarra1212-1512-2012.navarra.es>. Nahiz eta ez den erabilgarri egon beharrezko edukien mantentze- eta eguneratze-lanak egin bitartean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, itxaronzerrendek 2011ko irailetik 2012ko otsailera izandako bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Enrique Martín de Marcos jaunak galdera egin du itxaronzerrendek 2011ko irailetik 2012ko otsailera izandako bilakaerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA



Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak kontsulten, proba osagarrien eta kirurgiaren arloko itxarote-zerrenden 2011ko irailetik 2012ko otsailera bitarteko bilakaeraren xehetasunei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00038), honi erantsita bidaltzen dio erantzuna Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 30ean



Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

KIRURGIA ESTRUKTURALAREN ITXAROTE-ZERRENDA ABUZTUA-OTSAILA





Itxaron beharreko egun naturalak bat datoz hilabeteko azken egunean itxarote-zerrendan dauden gaixoen batez besteko itxaronaldiarekin.

LEHEN KONTSULTARAKO ITXAROTE-ZERRENDA ABUZTUA-OTSAILA



Ez dira aintzat hartu: Ginekologia. Emakumearen Arretarako Zentroyen Prebentzioa
Itxaron beharreko egun naturalak bat datoz gauzatutako jarduerarekin; alegia,
hilabetean artatutako gaixoekin.

JARRAI PEN BEREZIA BEHAR DUTEN MIAKETA OSAGARRIEN ITXAROTE-ZERRENDA ABUZTUA-OTSAILA



Itxaron beharreko egun naturalak bat datoz gauzatutako jarduerarekin; alegia, hilabetean artatutako gaixoekin.

Galdera, Martín de Azpilicueta Sariari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du Martín de Azpilicueta Sariari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa de Simón Caballero andreak "Martín de Azpilicueta" sariaren 2011ko deialdia nori eman zaion edo eman gabe utzi ote den argi-

tzen duen foru-agindua zergatik ez den argitaratu arrazoiak eskatuz egindako galderari dagokionez, aipatzekoa da 2012ko martxoaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialak (48. zk.) Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilariaren otsailaren 9ko 53/2012 Foru Agindua jasotzen duela; alegia, Nafarroako sektore publikoari eta Administrazio Publikoetako buruzko ikerketa- eta azterketa-lanetarako 2011ko VIII. "Martín de Azpilicueta" saria ebatzen duena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko martxoaren 22an

Lehenbiziko lehendakariorde eta Lehendakari-tzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko kontseilaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseilu berrien eraketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa publikoen administrazio kontseilu berrien eraketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak Nafarroako enpresa publikoen Administrazio Kontseiluak osatzeko eta horietako kudea-

tzailak izendatzeko datuei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00037), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Erantsita doa Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa publikoen administrazio-kontseiluetako kideen izendatze-datei buruzko informazioa.

Eta erantsita doa, halaber, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa publikoetako zuzendari-kudeatzaileen izendatze-datei buruzko informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

KUDEATZAILE BERRIAK		
ORAINGO SOZIETATEA	KUDEATZAILEA	IZENDATZE-DATA
Navarra de Suelo y Vivienda, SA (NASUVINSA)	Pedro Ardaiz Egües jn.	2011/12/21
Agencia Navarra del Transporte y la Logística, SA (ANL)	José Tomás García Zabalza jn.	2011/12/21
Empresa Navarra de Espacios Culturales, SA (ENEC)	Javier Lacunza Arraiza jn.	2011/11/30
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA (INTIA)	Jesús M ^a Echeverría Azcona jn.	2011/10/20
Navarra de Deporte y Ocio, SL (NDO)	Javier Sanz Carramiñana jn.	2011/12/19
Navarra de Servicios y Tecnologías, SA (NASERTIC)	José Luis Menéndez Rodríguez jn.	2011/10/17
Gestión Ambiental de Navarra, SA (GAN)	José Torres Ruiz jn.	2011/10/28
Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	José M ^a Jiménez Bolea jn.	2011/10/28
Centro Europeo de Empresas e Innovación, SL (CEIN)	Pablo Romera Alonso jn.	2011/10/28
Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL (SODENA)	Carlos Fernández Valdivielso jn.	2011/12/14
Centro de Autoaprendizaje de Idiomas, SA (CNAI)	Pedro Pegenaute Garde jn.	2011/11/09

NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA (CPEN) TALDEKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK																
Zk.	ENPRESA	Lehendakaria	Lehendakari ordea	BATZORDEKIDEAK												
				1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11		
0	OPEN	Álvaro Miranda Simavilla	Anai Astiz Medrano	Juan Franco Pueyo	Idoia Nieves Nujin	Reyes Calderón Cuadrado	Javier Antoniana Gastesi	Mª Ángeles Egúskiza Balmaseda	Judith Hualde Irigaray	Koldo Amézqueta Díaz						
		09.10.28	10.03.08	11.09.29	11.09.29	09.10.28	09.10.28	09.10.28	09.10.28	09.10.28						
1	NASUINSA	Anai Astiz Medrano	Mª Elena Torres Miranda	Jorge San Miguel Indurain	Fco. Javier Esparza Sánchez	César Redín Setuain	Pablo Cámara Baztán	Marie Laure Gómez Sánchez	Marta Pernaut Ojer	Pedro José Cebrián Leytún	Nekane Agreda Aróniz	Jesús Mª Ramírez Sánchez	Javier Iturbe Ecay			
		11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	12.02.10	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22		
2	ANL	Anai Astiz Medrano		Mario Sanchez Trueba	Luis Esain Equiza	Rafael Irigoyen Miquelarena	Antonio Monzó Boronat	Berta Miranda Ordóbas	Martin Orradre Artieda	Carolina Castillejo Hernández	Estela Moso Sarasa	Mª Raquel San Martín Ederria	Antonio Pascual Sesma Gil	José Antonio Melero Iriarte		
		11.11.22		12.03.14	11.11.22	12.02.10	12.02.10	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22	11.11.22		
3	HKL	Lourdes Goicoechea Zubelzu		José Javier Echarte	José Luis San Agustín Marco	Fernando Santafé Aranda	Miguel Angel Pérez García	Mª Carmen Segura Moreno	Luis Casado Oliver	Laura Sandúa Escrbano	Mª José Vidoreta Alfaro	Javier Navarro Arellano	Javier Monzón Rome	Bernardo Ciriza Perez		
		11.10.18		11.10.18	11.10.18	11.10.18	11.10.25	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	11.11.22	11.11.22		
4	INTIA	Lourdes Goicoechea Zubelzu		Rubén Palacios Goñi	Miguel Angel Martínez Perez	Tomás Mendivil Lizarraga	Ignacio Guembe Cervera	Juan Pablo Rebole Ruiz	José Miguel del Amo Villarias	Juan Antonio Sola Pradilla	Joaquín Portolés Beltran	Fco. Javier Legaz Egea	Angel Eraul Drona	Miguel Pascual Cuesta González		
		11.10.18		11.10.18	11.10.18	11.10.18	11.10.25	11.10.25	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	11.11.22	11.11.22		
5	GAN	Lourdes Goicoechea Zubelzu		Andrés Eciolaza Carballo	Enrique Eraso Centelles	Iñaki Morcillo Irazorza	Pedro Zuazo Onagoitia	Juan José Grau Lasheras	Cristina Sota Pernaut	Oscar Arizcuren Pola	Begoña Gamuza Bernaola	José Antonio Mendive Rodríguez	Juan Carlos González Muñoz			
		11.09.13		11.09.13	11.09.13	11.10.18	11.10.18	11.10.18	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10	12.02.10

6	NILSA	Roberto Jiménez Alii	Mariano Herrero Ibañez	Ignacio Arizabalaga Rodríguez	Jesús Espartza Iriarte	José Luis López Rodríguez	Francisco Pérez Arregui	José M ^o Iriarri Ollacizqueta	Gregorio Galilea Arazuri	José Luis Izco Biarge (CONSEJERO DELEGADO)	José Ignacio Sola Jiménez	Angel Pino Lozano	M ^o Begoña Urrutia Juanicotena	
7	ENEC	Juan Luis Sánchez de Muntain Lacasia	José Iribas Sánchez de Boado	Eduardo Elio Aldunate	Alfredo Huarte Carcar	Javier Lesaca Esquiroz	M ^o del Rosario Martínez González	Ana Setien Rodríguez	Ana Carmen Zabategui Reclusa	Juan Ramón Corpas Mauléon	Ana Elizalde Urmeneta	José Joaquín Oroz Pascual	Helena Berruezo Valencia	
8	NDO	M ^o Elena Torres Miranda	Juan Luis Sánchez de Muntain Lacasia	Carlos Erce Eguaras	Joaquín Ortigosa Ocon	Minerva Ullate Fabo	Marcelino Azcoiti Alonso	Javier Trigo Oubiña	Miguel Angel Pozueta Uribe	José Ramón Santesteban Uiz	José Antonio Marañón Oricain	M ^o Pilar García García	Ramón Alzóritz Goñi	
9	CNAI	José Iribas Sánchez de Boado		M ^o Fátima Baigorri Romero	Javier Felix Carmona Salinas	Salvador Estébanez Erasó	Ignacio Iriarte Aristu	David Herreros Sota	Iñigo Huarte Huarte	Carmen Mier Gómez	Jesús M ^o García Antón	Gabriel Viedma Moreno	Pedro M ^o Gravalos Falces	Santos Cerdán León
10	NASERTIC	Roberto Jiménez Alii	Marta Vera Janin	Jose Luis Azcárate Sanz	Joseba Asiain Albusu	Marta Huarte Rodríguez	Diego Asiain Valdelomar	Guzmán Miguel Garmendia Pérez	Natalia Ayarra Izco	Inmaculada Jurjo Macaya	Gregorio Eguliaz Gogorza	José Gabriel Iriarte Rived	José Contreras López	
11	CEIN	Lourdes Goicoechea Zubeizu		Imelda Lorea Echavarren	Miren Maite Dominguez Muguiro	Juan Carlos Artazcoz Sanz	Rafael Muguerza Erasó	Laura Alba Cuadrado	María Kutz Peironcelli	Cristina Ibarrola Guillén	Jaime Ubillos Mithondo	Jesús Sanz López	Gorka Jiménez López	José Luis Arastí Pérez
12	TRACASA	Ávaro Miranda Simavilla		Cristina López Mañero	Pedro Ugalde Zarattegui	Marta Echavarren Zozaya	Iosu Ardaiz Loyola	D. Manuel Arana Sorot	Fermín Muñoz Muñoz	José Javier Zabalata Zuriaga	Julio Ortiz de Landázuri Inchaurreondo	Amaya Otamendi Claramunt	Guzmán Miguel Garmendia Pérez	Javier Remirez Apesteguía
13	SODENA	Lourdes Goicoechea Zubeizu	Ávaro Miranda Simavilla	María Jesús Valdemoros Erro	José Ignacio Pérez de Albeniz Andueza	José Antonio Sarria Terrón	Jorge San Miguel Indurain	Juan Miguel Sucunza Nicasio	Juan Carlos Franquet Casas	Jesús Pejenaute Grávalos	Hiscan Patrimonio II	Aladino Collin Rodríguez	José Irigüibel López	

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseilu berriak eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren administrazio kontseilua hautatzeko irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten sozietateen administrazio kontseilu berriak eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren administrazio kontseilua hautatzeko irizpideei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz

Errea andreak sozietate publikoen Administrazio Kontseiluen izendapen- eta ordain-irizpideei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00040), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Enpresa Publikoen Administrazio Kontseilueta-ko batzordekideak izendatzeko irizpideak, hain zuzen, gaitasun profesionala eta dagokion sozietateak jarduten duen sektorearekiko lotura izanen dira.

Erantsita doa eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

SOZ.	1	NASUINSA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	3	CAT	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA				Zk.	IZENA		
1	Anai Astiz Medrano jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	1	Lourdes Goicoechea Zubeizu and.	4.000 €	GOI-KARGUA
2	Elena Torres Miranda and.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	2	José Javier Echarte jn.	4.000 €	4.000 €
3	Marie Gómez Sánchez and.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	3	José Luis San Agustín Marco jn.	4.000 €	4.000 €
4	Marta Pernaut Ojer and.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	4	Fernando Santafé Aranda jn.	4.000 €	4.000 €
5	Pedro José Cebrían Leyún jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	5	Miguel Ángel Pérez García jn.	4.000 €	4.000 €
6	Nekane Ágreda Arróniz and.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	6	M ^a Carmen Segura Moreno and.	4.000 €	4.000 €
7	Jesús M ^a Ramírez Sánchez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	7	Luis Casado Oliver jn.	4.000 €	4.000 €
8	Javier Iturbe Ecay jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	8	Laura Sandúa Escribano and.	4.000 €	4.000 €
9	Jorge San Miguel Indurain jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	9	M ^a José Vidorreta Alfaro and.	4.000 €	4.000 €
10	Francisco Javier Esparza Sánchez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	10	Javier Navarro Arellano jn.	4.000 €	4.000 €
11	César Redín Setuain jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	11	Javier Monzón Romé jn.	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
12	Pablo Cámara Baztán jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €	12	Bernardo Ciriza Pérez jn.	4.000 €	4.000 €

SOZietate Publikoen Administrazio-Kontseiluak - PES-00040ri erantzuna

SOZ.	2	ANL	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA			
1	Anai Astiz Medrano jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
2	Berta Miranda Ordobás and.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
3	Martin Orradre Artieda jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
4	Carolina Castillejo Hernández jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
5	Estela Moso Sarasa and.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
6	María Raquel San Martín Ederria and.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
7	Antonio Pascual Sesma Gil jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
8	José Antonio Melero Iriarte jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
9	Mario Sánchez Trueba jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
10	Luis Esain Equiza jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
11	Rafael Irigoyen Miquelarena jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
12	Antonio Monzó Boronat jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €

SOZ.	4	INTIA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA			
1	Lourdes Goicoechea Zubeizu and.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
2	Rubén Palacios Goñi jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
3	Miguel Ángel Martínez Pérez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
4	Tomás Mendivil Lizarraga jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
5	Ignacio Guembe Cervera jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
6	Juan Pablo Rebolé Ruiz jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
7	José Miguel del Amo Villarria jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
8	Juan Antonio Sola Pradilla jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
9	Joaquín Portoles Beltrán jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
10	Francisco Javier Legaz Egea jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
11	Angel Eraul Dronda jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
12	Miguel Pascual Cuesta González jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €

SOZ.	5	GAN	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA			
1	Lourdes Goicoechea Zubeizu and.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
2	Andrés Eciolaza Carballo jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
3	Enrique Eraso Centelles jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
4	Iñaki Morcillo Irastorza jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
5	Pedro Zuazo Onagoitia jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
6	Juan José Grau Lasheras jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
7	Cristina Sota Pernaut and.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
8	Oscar Arizcuren Pola jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
9	Begoña Ganuza Bernaola and.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
10	José Antonio Mendive Rodríguez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
11	Juan Carlos González Muñoz jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
12					

SOZ.	6	NIL-SA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA			
1	Roberto Jiménez Alli jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
2	Mariano Herrero Ibañez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
3	José Luis Izco Biarge jn.		GOI-KARGUA	GOI-KARGUA	GOI-KARGUA
4	Ignacio Arrizabalaga Rodríguez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
5	Jesús Esparza Iriarte jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
6	José Luis López Rodríguez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
7	Francisco Pérez Arregui jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
8	José María Irisarri Ollacarizqueta jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
9	Gregorio Galilea Arazuri jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
10	José Ignacio Sola Jiménez jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
11	Angel Pino Lozano jn.		4.000 €	4.000 €	4.000 €
12	Begoña Urrutia Juanicotena and.		4.000 €	4.000 €	4.000 €

SOZ.	9	CNAI	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA	
1	José Iribas Sánchez de Boado jn.		GOI-KARGUA
2	M ^a Fatima Baigorri Romero and.		GOI-KARGUA
3	Javier Felix Carmona Salinas jn.		4.000 €
4	Salvador Estebanez Eraso jn.		GOI-KARGUA
5	Ignacio Iriarte Aristu jn.		4.000 €
6	David Herreros Sota jn.		GOI-KARGUA
7	Iñigo Huarte Huarte jn.		GOI-KARGUA
8	Carmen Mier Gómez and.		4.000 €
9	Jesús María García Antón jn.		4.000 €
10	Gabriel Viedma Moreno jn.		4.000 €
11	Pedro M ^a Gravalos Falces jn.		4.000 €
12	Santos Cerdán León jn.		4.000 €

SOZ.	12	TRACASA	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA	
1	Álvaro Miranda Simavilla jn.		GOI-KARGUA
2	Cristina López Mañero and.		GOI-KARGUA
3	Pedro Ugalde Zaratigui jn.		4.000 €
4	Marta Echavarren Zozaya and.		4.000 €
5	Iosu Ardaiz Loyola jn.		4.000 €
6	Manuel Arana Soret jn.		4.000 €
7	Fermin Muñoz Muñoz jn.		4.000 €
8	José Javier Zabaleta Zuñiga jn.		4.000 €
9	Julio Ortiz de Landázuri Inchaurrendi jn.		4.000 €
10	Amaya Otamendi Claramunt and.		4.000 €
11	Guzmán Miguel Garmendia Pérez jn.		GOI-KARGUA
12	Javier Ramirez Apestequia jn.		4.000 €

SOZ.	8	NDO	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA	
1	Elena Torres Miranda and.		GOI-KARGUA
2	Juan Luis Sánchez de Muntiaín Lacasia jn.		GOI-KARGUA
3	Carlos Erce Eguaras jn.		GOI-KARGUA
4	Joaquín Ortigosa Ocon jn.		GOI-KARGUA
5	Minerva Ulliate Fabo and.		4.000 €
6	Marcelino Azcoiti Alonso jn.		4.000 €
7	Javier Trigo Oubiña jn.		4.000 €
8	Miguel Angel Pozueta Uribe jn.		GOI-KARGUA
9	José Ramón Santesteban Uriz jn.		4.000 €
10	José Antonio Marañón Oricain jn.		4.000 €
11	M ^a Pilar García García and.		4.000 €
12	Ramón Alzorriz Goñi jn.		4.000 €

SOZ.	11	CEIN	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA	
1	Lourdes Goicoechea Zubeizu and.		GOI-KARGUA
2	Imelda Lorea Echavarren and.		GOI-KARGUA
3	Miren Maite Dominguez Muguro and.		4.000 €
4	Juan Carlos Artazoz Sanz jn.		4.000 €
5	Rafael Muguera Eraso jn.		4.000 €
6	Maria Kutz Peironceli and.		4.000 €
7	Cristina Ibarrola Guillén and.		GOI-KARGUA
8	Jaime Ubillos Minondo jn.		4.000 €
9	Jesús Sanz López jn.		4.000 €
10	Gorka Jiménez Sánchez jn.		4.000 €
11	José Luis Arasti Pérez jn.		4.000 €
12	Laura Alba Cuadrado and.		4.000 €

SOZ.	7	ENEC	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA	
1	Juan Luis Sánchez de Muntiaín Lacasia jn.		GOI-KARGUA
2	José Iribas Sánchez de Boado jn.		GOI-KARGUA
3	Eduarne Elio Aldunate and.		GOI-KARGUA
4	Alfredo Huarte Carcar jn.		4.000 €
5	Javier Lesaca Esquiroz jn.		GOI-KARGUA
6	María del Rosario Martínez González and.		4.000 €
7	Ana Setien Rodríguez and.		GOI-KARGUA
8	Ana Carmen Zabalegui Reclusa and.		GOI-KARGUA
9	Juan Ramón Corpas Mauleón jn.		4.000 €
10	Ana Elizalde Urmeneta and.		4.000 €
11	José Joaquín Oroz Pascual jn.		4.000 €
12	Helena Berruero Valencia and.		4.000 €

SOZ.	10	NASERTIC	2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.		IZENA	
1	Roberto Jiménez Alli jn.		GOI-KARGUA
2	Marta Vera Janín and.		GOI-KARGUA
3	José Luis Azcárate Sanz jn.		4.000 €
4	Joseba Asiain Albisu jn.		4.000 €
5	Marta Huarte Rodríguez and.		4.000 €
6	Diego Asiain Valdelomar jn.		4.000 €
7	Guzmán Miguel Garmendia Pérez jn.		GOI-KARGUA
8	Natalia Ayarra Izco and.		GOI-KARGUA
9	Inmaculada Jurio Macaya and.		GOI-KARGUA
10	Gregorio Eguíluz Gogorza jn.		GOI-KARGUA
11	José Gabriel Iriarte Rived jn.		4.000 €
12	José Contreras López jn.		4.000 €

SOZ.	SODENA		2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.	IZENA		
1	Lourdes Goicoechea Zubeizu and.		GOI-KARGUA
2	Álvaro Miranda Simavilla jn.		GOI-KARGUA
3	María Jesús Valdemoros Erro and.		GOI-KARGUA
4	José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza jn.		4.000 €
5	José Antonio Sarria Terrón jn.		4.000 €
6	Jorge San Miguel Indurain jn.		GOI-KARGUA
7	Juan Miguel Sucunza Nicasio jn.		4.000 €
8	Juan Carlos Franquet Casas jn.		4.000 €
9	Jesús Pejenaute Grávalos jn.		4.000 €
10	Hiscan Patrimonio II		4.000 €
11	Aladino Colín Rodríguez jn.		4.000 €
12	José Iriguibel Pérez jn.		4.000 €

SOZ.	CPEN		2012ko ORDAINEN AURREIKUSPENA
Zk.	IZENA		
1	Álvaro Miranda Simavilla jn.		GOI-KARGUA
2	Anai Astiz Medrano jn.		GOI-KARGUA
3	María Angeles Eguisquiza Balmaseda and.		6.000 €
4	Reyes Calderón Cuadrado and.		6.000 €
5	Javier Antofiana Gastesi jn.		6.000 €
6	Judith Hualde Irigaray and.		6.000 €
7	Idoia Nieves Nuin and.		GOI-KARGUA
8	Juan Franco Pueyo jn.		GOI-KARGUA
9	Koldo Amezqueta Diaz jn.		6.000 €

Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari atxikitako enpresa publikoetako langileen gastuen kapituluari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Beltrán Villalba andreak galdera egin du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari atxikitako enpresa publikoetako langileen gastuen kapituluari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 9ko 24. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba

andreak Nafarroako enpresa publikoetan kontratatutako pertsoneri buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00036), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Erantsita doa eskatutako informazioa.

Berregituraketaren aurreko egoerari buruzko informazioari dagokionean, aipagarria da bat datoirela 2010/12/31ko datuak jasotzen dituen zutabe-ko informazioarekin

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 2an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

PES-00036 parlamentu-galderari erantzuna
CPENra atxikitako enpresa publikoen langile -gastuen kapitulua zen batekoa eta kontratatutako pertsonen kopurua.

Zk.	CPEN-Matrizea	Datu errealak 2010/12/31	2010eko gastu- aurrekontua, guztira	"Sozietate bakoitzean 2010eko gastu-aurrekontu eguneratuaren" %, guztiarekin alderatuta (**)	Datu errealak 2011/05/31	Datu errealak 2011/09/30	Datu errealak 2011/12/31	2011ko gastu- aurrekontua, guztira	"Sozietate bakoitzean 2011ko gastu-aurrekontu eguneratuaren" %, guztiarekin alderatuta (**)	Datu errealak 2012/02/29	2012ko gastu- aurrekontua, guztira	2012 x (2/14) aurrekontu- gastuak	[Sozietate bakoitzean 2012ko gastu- aurrekontua" bi hilebera proratan banatua, alegia 2/14]- aren %, guztiarekin alderatuta (**)
	Kontratatutako pertsonen kop.	3			4	4	7			8			
	Langile-gastuak, guztira	243.451	11.895.581	% 2	97.454	205.198	313.595	14.391.909	% 2	76.981	14.233.298	2.033.328	% 4
1.-NASUVINSA*													
	Kontratatutako pertsonen kop.	94			93	92	94			90			
	Langile-gastuak, guztira	4.007.060	90.859.960	% 4	1.366.631	2.670.637	3.775.807	91.863.540	% 4	432.489	80.343.798	11.477.685	% 4
2.-LOGÍSTICA (ANL)*													
	Kontratatutako pertsonen kop.	9			9	10	9			9			
	Langile-gastuak, guztira	593.542	4.343.456	% 14	188.215	427.743	578.227	3.218.518	% 18	166.332	3.752.237	536.034	% 31
3.-TUDELA (CAT)													
	Kontratatutako pertsonen kop.	5			6	6	6			5			
	Langile-gastuak, guztira	286.295	10.766.782	% 3	89.296	170.511	237.993	14.588.504	% 2	32.962	17.940.907	2.562.987	% 1
4.-INST. NAVARRO DE TECNOLOGIAS e INFRAESTRUCTURAS AGROALIMENTARIAS (INITIA)*													
	Kontratatutako pertsonen kop.	218			218	218	214			214			
	Langile-gastuak, guztira	10.708.264	41.100.661	% 26	3.671.431	7.190.453	10.068.788	30.783.948	% 33	1.486.444	29.854.130	4.264.876	% 35
5.-(GANI)*													
	Kontratatutako pertsonen kop.	293			147	137	144			124			
	Langile-gastuak, guztira	6.721.570	15.219.087	% 44	2.162.030	3.979.255	5.348.262	13.785.919	% 39	683.594	13.147.710	1.878.244	% 36

6.-LOCALES (NILSA)																											
Kontratatutako pertsonen kop.	36					36						36									37						
Langile-gastuak, gutzira	2.196.468	19.769.345				933.895					1.638.529					16.576.294					339.418			20.104.286			
			% 11																						2.872.041	% 12	
EMPRESA NAVARRA DE ESPACIOS																											
7.-CULTURALES (ENECSA)																											
Kontratatutako pertsonen kop.	26					26															26						
Langile-gastuak, gutzira	1.465.303	11.786.652				603.791					1.109.424					11.088.461					228.846			11.182.488			
			% 12																							1.597.498	% 14
8.-(INDO)*																											
Kontratatutako pertsonen kop.	21					28															27						
Langile-gastuak, gutzira	947.941	16.068.246				379.746					736.081					8.375.212					151.561			10.169.700			
			% 6																							1.452.814	% 10
CENTRO NAVARRO DE APRENDIZAJE																											
9.-E IDIOMAS (CNAI)																											
Kontratatutako pertsonen kop.	21					32					35										24						
Langile-gastuak, gutzira	1.120.753	1.754.763				342.736					760.054					1.732.796					1.042.391			1.723.114			
			% 64																							246.159	% 53
10.-TECNOLOGÍAS (MASERTIC)*																											
Kontratatutako pertsonen kop.	99					118					120										107						
Langile-gastuak, gutzira	4.691.217	21.559.735				2.057.327					3.604.449					22.297.782					716.770			22.445.572			
			% 22																							3.206.510	% 22
CENTRO EUROPEO DE EMPRESAS E																											
11.-INNOVACIÓN (CEIN)*																											
Kontratatutako pertsonen kop.	98					97					95										86						
Langile-gastuak, gutzira	4.197.665	8.302.008				1.322.857					2.540.605					8.117.650					457.940			7.296.772			
			% 51																							1.042.396	% 44
12.-(TRACASA)*																											
Kontratatutako pertsonen kop.	314					319					317										318						
Langile-gastuak, gutzira	13.203.689	27.232.253				5.338.513					9.415.524					25.605.974					2.185.204			25.162.794			
			% 48																							3.594.685	% 61
SOCIEDAD DE DESARROLLO DE																											
13.-NAVARRA (SODENA)*																											
Kontratatutako pertsonen kop.	25					24					23										16						
Langile-gastuak, gutzira	2.026.167	23.612.405				575.154					1.144.307					34.414.287					217.564			20.543.996			
			% 9																							2.934.857	% 7
MIYABI																											
Kontratatutako pertsonen kop.	6					7					7										7						
Langile-gastuak, gutzira	340.234	1.310.223				122.105					236.242					1.676.622					49.064			1.732.860			
			% 26																							247.551	% 20

POSUSA														
Kontratututako pertsonen kop.	5													
Langile-gastuak, guztira	192.949	1.139.389	% 17	24.968	39.662	54.312	624.133	6.360	567.903	81.129				% 8
SALINAS														
Kontratututako pertsonen kop.	62													
Langile-gastuak, guztira	2.411.161	12.364.410	% 20	999.224	1.864.884	2.667.627	15.970.026	363.657	16.250.346	2.321.478				% 16
BURNIZKO (Sunsundegui Taldea)														
Kontratututako pertsonen kop.	332													
Langile-gastuak, guztira	12.561.654	59.258.135	% 21	4.805.654	8.196.965	11.152.070	36.481.452	1.438.337	36.481.452	5.211.636				% 28

	Datu errealak 2010/12/31	2010eko gastu-aurrekontua, guztira	"Sozietate bakoitzean 2010eko gastu-aurrekontuaren % eguneratuaren % guztiarekin alderatuta (**)	Datu errealak 2011/05/31	Datu errealak 2011/09/30	Datu errealak 2011/12/31	2011ko gastu-aurrekontua, guztira	"Sozietate bakoitzean 2011ko gastu-aurrekontuaren % eguneratuaren % guztiarekin alderatuta (**)	Datu errealak 2012/02/29	2012ko gastu-aurrekontua, guztira	2012 x (2/14) aurrekontu-gastuak	[Sozietate bakoitzean 2012ko gastu-aurrekontua] bi hilabetera prorratatua banatua, alegia 2/14-aren % guztiarekin alderatuta (**)
Kontratututako pertsonak, guztira	1.667			1.492	1.471	1.413			1.387			
Langile-gastua/Aurrekontu-gastuak, guztira	67.915.403	378.343.191	% 18	25.061.028	45.930.522	63.338.261	352.593.027	% 18	9.161.296	332.933.363	47.561.909	% 19

(*) Bateria-prozesuan dauden sozietate guztietan, 2010/12/31ko datuak bertan txertatutako sozietateen multzoari dagozkie.

(**) 2010eko, 2011ko edo 2012ko guztizko gastu -aurrekontuak (horiekiko kalkulatu da langile-gastuek osatutako %) enpresa bakoitzeko aurrekontuan sartutako gastu guztien batura jasotzen du; alegia, hornidurak, beste ustiapen-gastu batzuk, amortizazioak, finantza-gastuak eta beste batzuk.

Galdera, higiezinaren katastro-balorazioan akatsak antzeman izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du higiezinaren katastro-balorazioan akatsak antzeman izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak azaroaren 25eko 39/2011 Ebazpenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00041), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak:

Lehenik eta behin, komenigarria dirudi galdegindako Ebazpenak xedatzen duen prozedura bera azaltzea. Urtero-urtero, Nafarroako Erregistro eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 21.4 artikuluan xedatutakoa beteta (bertan xedatzen da ondasun higiezinaren balioespeneren-funtzioak esleituta dituen Zerga Ogasuneko Zerbitzuaren Zuzendariak, urtero, ebazpena eman beharko duela, azaroaren 30ean Lurralde Aberastasuaren Erregistroan dauden ondasun guztien balioak onartuta), abenduaren 1etik 20ra bitarte, ondasun higiezinaren titularren esku geratzen dira hurrengo urteko katastro-balioak, horien berri izan dezaten eta behin-behinean baliatu ditzaten.

Herritarrek Nafarroako Atarian ikus ditzakete horiek, edo bestela, udaletxeetan kontsultatu. Ohikoa izaten da gisa honetako azalpenetan zenbait titularrek akatsak hautematea. Orain artean, akats horiek ez ziren balioen kalkulu oker baten ondoriozkoak, Katastroan ondasunen ezaugarriak modu desegokian finkatzearen ondoriozkoak; horregatik, katastroen mantentze-arloari igortzen zitzaizkion erreklamazioak. Alabaina, aurten, erreklamazio horietako bat abiapuntu hartuta, hauteman zen kasu batzuetan eta Nafarroako udalerrri batzuetan, sistematikoki azaldu direla balio okerrak, beheraxeago zehaztutako arrazoia dela tarteko. Horrek eragina dauka titular dezenterengan, eta horrenbestez, erabaki zen (betiere, dagokien udaletxeekin adostasunean) horretan nahastuta

dauden higiezinarentzat kontsultarako beste tarte bat zabaltzea, horiek ere balio zuzenen berri jaso dezaten.

Hautemandako akatsen kopuruari dagokionean, hasiera batean, 51.197 higiezinaren balio okerrak hauteman ziren; alegia, Lurralde Aberastasuaren Erregistroak biltzen dituen 1.866.366tik % 2,74renak.

Hasiera batean jakinarazitako balioaren eta zuzenaren arteko aldearen balio absolutua, bestalde, 5.000 eurotik beherakoa zen unitateen % 84rentzat eta 1.000 eurotik beherakoa

% 69rentzat. Balio absolutuan 1.000 eurotik beherako aldeak, batez bestean, urtean ordaindu beharreko zergan bi eurotik beherako aldea dakar, alde zein kontra.

“Balioespen berriak” egiteko erabili diren prozedura eta baliabideak hizpide hartuta, nabarmentzekoa da zehazki ez direla “balioespen berriak”, balio zuzenei dagozkienak baizik. Modu normalizatuan egiten da balioespena: informatika-aplikazioak erabilia eta Lurralde Aberastasuaren Erregistroko datuetan oinarrituta. Oraintxe bertan, balioespenerako bi aplikazio daude: batetik, balioespena 2010ean onartutako araudi berriaren arabera egiten duena; alegia, data horretatik aurrera euren balorazio-ponentzia berrikusi duten udalerrientzat erabiltzen dena. Eta, bestetik, balioespena aurreko araudiaren arabera egiten duena, behin-behinean gainerako udalerrientzat erabiltzen dena.

Akatsak eragin dituen arrazoiari dagokionean, aipatzekoa da izendatutako bi aplikazioetatik lehenengoa proba-aldian egon dela orain gutxira arte. Zuzendu behar izan den akatsa, hain zuzen, titularren esku behin betiko balioak jarri beharrean, aplikazio berriaren funtzionamendua egiaztatzeko egindako proba ugarietako batean lortutako balioak jartzearen ondoriozkoa izan da.

Akatsak saihesteko ezarritako neurriei dagokienez, balioak titularren esku jartzea izan da neurri nagusia, haiek ere kontsultatu ahal izateko. Eta herritarren lankidetzari esker jakiten dira, hain zuzen, egon litezkeen akats guztiak; hala, horiek konpontzeko aukera izaten da. Ohiko azalpenari, beraz, oraingo honetan, dagokion zuzenketa gehitu zaio, ezohiko neurri moduan.

Nolanahi ere, ponentziari berari buruz, esan beharrean gaude Tafallak 14 urte zeramatzala

12/2006 Foru Legearen 35. artikulua xedatutakoa bete gabe; alegia, batere berrikusi gabe. Horregatik, katastro-balioak ez zeuden eguneratuta, eta ez zituzten txertatuta hirigintza-araudiak harrezkero egin dituen aldaketa guztiak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Ondasun Higiezin Zergaren diru-bilketan izanen den eraginararen gaineko erantzukizunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Ondasun Higiezin Zergaren diru-bilketan izanen den eraginaren gaineko erantzukizunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafallan OHZ biltzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00042), hau erantzun

du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak:

Lehenik eta behin argitu behar da Nafarroan ez dagoela OHZrik (Ondasun Higiezin gaineko Zerga), Erregimen komune zergarik; baizik eta Lurraren Kontribuzioa izeneko.

Beraz, Kontribuzioa kobratzeari dagokionean, zerga-oinarri moduan higiezin balio zuzena hartuta, ezin esan daiteke bilketeri egindako afektazioa denik; izan ere, afektazioa izateko, balio okerrak erabili beharko liriteke, zerga-ordaintzaileen okerreko ekarpenak eraginen lituzketenak, kasu batzuetan alde eta besteetan kontra.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Tafallan katastro-balio osoan izan den aldaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Tafallan katastro-balio osoan izan den aldaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafallako katastroaren balorazio-ponentzia berriari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00043), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariak:

Lehenik eta behin, aipatzekoa da balioak zuzentzeak ez daukala loturarik Tafallako katastro-

aren balorazio-ponentzia berri bat osatzeko prozesuarekin, baizik eta katastroaren balioak finkatzeko urteroko ohiko prozedurarekin. Badirudi nahaste hori gertatu dela katastroen titularren artean ere; bai, behintzat, jaso diren errekurtsioen edukiei erreparatuz gero.

Tafallaren kasuan, hiri-unitateei bakarrik eragin zien zuzenketak (hirigintza-aprobetxamendua duten lurzoruak eta eraikuntzak), eta ez nekazaritza- eta baso-aprobetxamendua duten lursailei. Tafallako hiri-unitateen balioen batura, zuzenketaren aurretik, 951.169.856 eurokoa zen; gero, ordea, 958.860.243 eurokoa. Beraz, argi dago % 0,81 handitu zela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Tafallako Udalak katastro-balorazioak ofizioz berrikusteko eskatu izanaren gaineko jakinarazpena jaso ote den jakitekoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Tafallako Udalak katastro-balorazioak ofizioz berrikusteko eskatu izanaren gaineko jakinarazpena jaso ote den jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafallako

udalerriko eremu ureztagarrien katastroko balioen berrikuspenari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-44), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Tafallako Udalak oinarrizko datuak aldatzeko espediente bat izapidetu du (09-01-2012 zk.), Nafarroako Kanaleko IV-1 eta IV-2 sektoreetako orubeei dagokiena, eta espediente hori Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datu-basean sartuta dago, dagoeneko.

Tafallako Udalaren katastroaren aldaketa-eskariaren kopia atxiki da.

Argitu beharra dago udalaren ardura dela bere udalerriko katastroa mantentzea. Tipifikazioaren aldaketak ohiko mantentze-lanen barruan sartzen dira, eta lurzoruaren gorabeheren aldaketen ondo-

rioz nahiz udalak lurzoruen egokitasuna aztertu izanaren ondorioz gertatu ohi dira. Lurzoruen nekazaritza-erabileraren ondoriozko tipifikazioari dagokionez, azken urteetan, udalek urteko 1.500 eta 2.500 aldaketa izapidetu dituzte, guztira, tipo-eta klase-aldaketak kontuan hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman)

Galdera, Tafallako udalerrirako balioespen-lantaldea berrikusteko batzorde mistoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Tafallako udalerrirako balioespen-lantaldea berrikusteko batzorde mistoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafallako udalerrirako balorazio-ponentzia berrikusteko batzorde mistoari buruz idatziz erantzuteko egingako galderari dagokionez (PES-00045), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Aipatu beharra dago udalerrietako balorazio-ponentziaren proiektua prestatzea udalei dagokien ardura dela (azaroaren 21eko Nafarroako Erregistroaren eta Katastroaren 12/2006 Foru Legearen 36. artikulua), eta proiektua prestatzeko fasean osa daitekeela batzorde mistoa, testua lantzeko prozesuan hari kontsulta egin ahal izateko, baina baita udalak proiektua landu ondoren ere, hogeiguneko jendaurreko erakustaldiaren izapidea bukatutakoan. Tafallari dagokionez, bigarren fasean eratu zen batzorde mistoa, hau da, proiektua amaitutakoan.

Batzorde mistoa lankidetzat teknikoko organo bat da; udalaren balorazio-ponentziaren edukia finkatzeko xedea du, eta honako kide hauek osatua da: dagokion udaleko hiru ordezkari, udalak

berak izendatuak; eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazio hiru ordezkari, horietako bi, Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzaileak izendatuak, Ogasuneko langile teknikoen artean, eta hirugarrena, berriz, Lehendakariaren Administrazio Publiko eta Barne Departamentuak izendatua.

Tafallako Udalak honako ordezkari hauek izendatu zituen batzorde mistorako, abuztuaren 25ean, egiaztagiririk bidez:

Miguel Bañeros Ibañez jauna

Luis Angel Autor Guembe jauna

José María Oteiza Eguizabal jauna

Zerga Ogasuneko zuzendari-kudeatzaileak 2011ko abuztuaren 31n emandako 692/2011 Ebazpenaren bidez, berriz, honako kide hauek izendatu ziren Ogasunaren ordezkari:

Fermín Muñoz Muñoz jauna (Lurralde Aberastusaren Zerbitzuko zuzendaria)

Julián Sarasa Azcárate jauna (Balorazio Ponentzien Bulegoko burua)

Toki-administrazioari dagokionez, bestalde, Francisco Javier Lachén Barbería jauna izendatu zuten ordezkari.

2011ko irailaren 9an osatu zen batzorde mistoa, jendaurreko erakustaldiaren izapidea amaituta. Izapide horretan inolako alegaziorik jaso ezenez, ponentziaren behin betiko edukia onartuta gelditu zen, eta Tafallako udalerrirako balorazio-ponentzia onartzeko proposamen loteslea egin zitzaion Zerga Ogasunari.

Nafarroako Zerga Ogasuneko Lurralde Aberastusaren Zerbitzuko zuzendariak irailaren 13an emandako 27/2011 Ebazpenaren bidez, Tafallako balorazio-ponentzia onartu zen.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Tafallako Udalak balorazio-ponentzia berraztertze izendatutako ordezkarien 2011ko irailaren 9ko aktaren kopia atxiki da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, jakitekoa noiz salduko den Donapea eta noiz aldatuko diren eraikin berrira.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du, jakiteko noiz salduko den Donapea eta noiz aldatuko diren eraikin berrira.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Iruñean hiru ikerketa-zentro berri ezartzeari buruz idatziz

erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00047), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Salerosketa-eragiketa egin aurretik, Protokoloan aurreikusitako moduan, tasatzaileak izendatu behar dira eta, izendapen horren ondoren, tasazioa egin.

Salmenta-prezioa tasazio independenteak adierazten duena izango da, Protokoloan aurreikusitakoari jarraituz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Donapea BHIa saltzeko eragiketaren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Donapea BHIa saltzeko eragiketaren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Iruñean

hiru ikerketa-zentro berri ezartzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00048), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak:

Donapea BHIren eraikinaren salmenta 2012ko ekitaldian egingo da, aurreikuspenen arabera, eta 2014-2015 ikasturterako aurreikusita dago Lanbide Heziketako ikastetxe berrira aldatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 11n

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Etxabakoizko San José zentroaren eraikina egiteko aurreikusitako aurrekontuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Etxabakoizko San José zentroaren eraikina egiteko aurreikusitako aurrekontuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak San José de Echavacoiz ikastetxearen eraikuntzarekin loturiko zenbait gairi buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00046), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuak egindako txostenean oinarrituta:

2012ko aurrekontuetan "Lanbide Heziketako Campusa. Iruñerriko Lanbide Heziketaren Plan-gintza" (41800-410001-6020-325105) partida dago sartuta, 1.050.000 euroko kreditua duena. Partida horren kontura gauzatu nahi dira, 2012ko ekitaldian, San José ikastetxea eraisteko lanak eta eraikin berriko obren proiektua eta zuzendaritza.

Sanitaria-Donapea Lanbide Heziketako Campus berriko obra egikaritzeko 21.690.100 euroko gehieneko aurrekontua kalkulatu da, urbanizazioa eta eraiste-lanak kontuan hartuta, eta gastu orokorrak, etekin industrialak eta BEZa barne direla.

Lanak 2014ko irailerako amaituta egongo dira, aurreikuspenen arabera. Hala, inbertsioak 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietan egingo dira, aurrekontuetan diru erabilgarririk izanez gero, betiere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 12an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin 2011n sinatu zen hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Marisa De Simón Caballero andreak galdera egin du Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalarekin 2011n sinatu zen hitzarmenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko martxoaren 16ko 26. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak "Laneko bajen kudeaketa modernizatzeko eta berritzeko jardueretarako Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmena berritzeko eta hobetzeko neurria. 2011n Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalarekin sinatutako hitzarmenaren egoera, aurreikusitako aldaketak eta ebaluazioen emaitzak" gaiari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00049), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuko kontseilariak:

Laneko bajen kudeaketa modernizatzeko eta berritzeko jarduerari begira INSSrekin sinatutako hitzarmena berritzeari eta hobetzeari eta neurri horren egoerari buruz egindako galderari loturik: azpimarratu beharra dago 2012. urterako hitzarmen-zirriborro bat badagoela, 2011ko hitzarmenari jarraipena emateko, eta onartzeko dagoela artean, baina Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuaren eta INSSren asmoa dela 2011n abian jarritako programa espezifikoa gauzatzen jarraitzea. Programa horrek honako helburu hauek ditu: aldi baterako ezintasunagatiko prestazioa hobetzeko kudeaketa-estrategia jakin batzuk garatzea,

egoera horretan dauden pertsonentzako asistentzia-ahalmena areagotzea eta iraupen laburreko prozesuetan hartu beharreko jokabidea aztertzea.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta aurreikusi diren aldaketak gorri adierazita daude:

I. atala- Informatizazioa eta INSSra bide telematikoenetik igortzea aldi baterako ezintasunaren parteak, epearen barruan eta diagnostiko-kode batekin. Igorritako parte guztietan diagnostiko-kodea adierazi beharko da, Osasunaren Mundu Erakundearen gaixotasunen nazioarteko sailkapenarekin bat etorrita (CIE-9 MC). Foru Komunitateak bestelako kodifikazio-sistemaren bat erabiliz gero, CIE-9 MC sistemara bihurtu beharko da (7. argitalpena), E eta V kodeak alde batera utzita.

III. atala- INSSk eta Osasun Zerbitzu Publikoko mediku-ikuskaritzak emandako alden kudeaketaren behatokia, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateginaren 128. artikulua 1. a) atala aplikatuz aurkeztutako desadostasunen traktura eta Lan Istripuen eta Gaixotasun Profesionalek egindako alta-proposamenen kudeaketaren jarraipena.

2011n INSSrekin sinatutako hitzarmenaren ebaluazioen emaitzei dagokienez, berriz, hauxe izan da ebaluazioa:

Jasotako zenbatekoa:

Hitzarmenaren gehieneko zenbatekoa: 2.000.000 €

Nafarroak jasotakoa: 1.683.200 €

Hitzarmenaren gehieneko zenbatekoarekin alderatuta jasotako ehunekoa %84,16.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko apirilaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

